



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko apirilaren 10a

53. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako osasun-garraioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, euskal telebista publikoa ikusi ahal izatea dela-eta Nafarroak dituen interesei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak daukan dokumentaziori buruzkoa, zeinari jarraikiz Estatuko administrazioak eragozten baitu foru parlamentarien esku jarri ahal izatea Guardia Zibilak D ereduari buruz egindako txostena. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, 2013ko ekainean onetsitako Nafarroako Kutxa Fundazioaren estatutu berrietan ezarritako eskumen berekiak betez Nafarroako Gobernuak 2013an egindako jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, 2013an zehar “konpromiso sozialeko proiektuaren zigilua” lortu duten proiektuei merkataritza-enpresek, finantza-entitateek eta pertsona partikularrek egindako dohaintzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Ideia-lehiaketa, Nafarroan terrorismoaren biktima izandakoen oroimenez artelan plastiko bat egitekoa. Oinarri arautzaileak (8. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako osasun-garraioari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Víctor Rubio Martínez jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako osasun-garraioari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko otsailaren 21eko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Víctor Rubio Martínez jaunak informazioa eskatu du osasun-garraioko enpresaren bat kontratatzeari buruz (PES-045). Hauxe da Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

Inongo enpresa ez zaio Nafarroako Gobernuari zerbitzu ematen ari osasun-garraioaren zerbitzurik eza betetzeko, ez dagoelako zerbitzu horren falta edo gabeziarik. Ambulancias Alerta enpresarekin kontratua egiteko arazoia izan da erantzun denborak hobetzea oinarritzko bizi euskarridun garraioan, unean uneko egoeretan. Nahiz eta atzerapenik ez izan, are gutxiago arriskurik, herritarrentzat eragozpenak sortzen ziren eta gainerako anbulantzien zerbitzuen zerrenda laburtzen zen. Kontratua egin zenean, eremu geografiko

ko horretan enpresa hori baino ez zen ezagutzen eskatu ahalako prestazioa eskaintzeko.

Prozedura negoziatuaren bidez egin da kontratua, faktura jasotakoan ordaintzeko sistemarekin, Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legearen 73.4 d) artikuluan ezarritakoari jarraituz, enpresak oinarritzko bizi euskarridun anbulantzien bidezko osasun-garraiorako dituen tarifen arabera.

Beraz, ez dago zenbateko finkoko kontraturik; faktura jasotakoan ordaindu beharreko enkarguak dira, eta kontratatzen diren zerbitzuen kopuruen araberrako zenbatekoa ordaintzen da. Zerbitzu bakoitzeko prezioa 56,90 euro da.

Orain arte lortutako emaitza positiboak ikusirik, eta inoiz ahaztu gabe egungo sistema itunduaren salbuespenezko osagarri batez ari garela, sektoreko enpresei eskatu ahalako prestazioaren kontratua egiteko lehiaketa eskaintzeko aukera aztertzen ari da. Prestazio horrek unean uneko eskari aldatkorra eta aurreikusitako mailaren gainetik sor daitzkeen puntako eskariak ase ahal izanzen lituzke. Horrek guztiak Nafarroako osasun-garraioa hobetuko luke.

Hori guztia, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2014ko martxoaren 12an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

Galdera, euskal telebista publikoa ikusi ahal izatea dela-eta Nafarroak dituen interesei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, euskal telebista publikoa ikusi ahal izatea dela-eta Nafarroak dituen interesei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko otsailaren 21eko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, euskal telebista publikoa ikusi ahal izatea dela-eta Nafarroak dituen interesei buruz (PES-00044). Hau erantzun dio Nafarroako Gobernuak Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Aurretik, idatzizko galdera bat aurkeztu zen Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean osatutako lan-taldeari buruz, eta kontseilari honek emandako erantzunaren haritik dator beste galdera hau. Hori dela eta, komeni da honako hau argitzea:

Otsailaren 11n igorritako erantzunean kontseilari honek zehaztu zuenez, "Nafarroako eta

Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuen arteko lan-taldeak 2014ko urtarrilaren 17an egin zuen bere lehen bilera lege-aukerak eta bide tekniko eta politikoak aztertzeke, aurrera egin nahian, Nafarroako interesen defentsa barruan hartuko duen konponbide egoki baten bila, EAEko telebista publikoa Foru Komunitatean ikusi ahal izan dadin"

Oraingoan Ramírez jaunak jakin nahi du "Nafarroako Gobernuaren ustez zeintzuk diren interes horiek". Bada, egiazta daitekeenez, Nafarroako Gobernuak ez du inolako interes propiorik erabili, aitzitik, gai honetan, esku artean dituen afera guztietan bezala, Gobernuaren lanaren helburua nafarren interes orokorrak defendatzea da, ezin liteke besterik izan. Halaxe adierazi zen aurreko erantzunean, eta oraingoan ere berdin.

Nafarren interesen defentsa horrek, kasu zehatz honetan, abiapuntu ditu Nafarroako Parlamentuaren eta Espainiako Kongresuaren bitartez guztiok daukagun araudiaren defentsa –arudi horrek argi ezartzen ditu LTDaren emisioen esparrua– eta legez kontrako esku-sartzeen salaketa.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2014ko martxoan

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Nafarroako Gobernuak daukan dokumentaziori buruzkoa, zeinari jarraikiz Estatuko administrazioak eragozten baitu foru parlamentarien esku jarri ahal izatea Guardia Zibilak D ereduari buruz egindako txostena.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderen erantzuna, Nafarroako Gobernuak daukan dokumentaziori buruzkoa, zeinari jarraikiz Estatu-ko administrazioak eragozten baitu foru parlamentarien esku jarri ahal izatea Guardia Zibilak D ereduari buruz egindako txostena, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko otsailaren 21eko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak informazioa eskatu du, PES-00002 galdera errepikatuz. Hau erantzun dio Nafarroako Gobernu-ko bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Otsailaren 11n idatziz emandako erantzunaren bidez Nafarroako Gobernuak uste zuen bete-betean erantzun ziola foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderari (PES-00002).

Hala ere, Ramírez jaunak, bere galderari erantzun ez zaiolakoan, berriro aurkeztu du, eta zehaztu du berak ez duela D ereduari buruzko txostena eskatu, baizik eta Estatu-ko Gobernuak Nafarroako Gobernuari igorritako gutun edo txostena, zeinean zehazten baita txosten hori erreserbatua dela.

Gogora ekarri behar da parlamentari jaunak abendutik ezagutzen duela Ministerioarekin izandako harremanen edukia, orduan kontseilari honen agerraldia eskatu baitzen gai horretaz aritzeko.

Egindako informazio-eskaerari erantzunez, aipatutako gaia dela-eta Barne Ministerioak Nafarroako

Gobernu-ko bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariari igorri zion gutunaren kopia erantsi da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2014ko martxoan

Bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

ERANSKINA

Lehendakariorde agurgarria:

Aipatu duzun informazioa Guardia Zibileko Informazio Zerbitzuak landu du, ETA talde terroristari buruz eta, ondorioz, ETAk Administrazio Publiko-ko zenbait egituratan sartu eta horrela bere helburuak errazago lortzeko duen asmoari buruz ikertzeko bere eginkizunen barnean.

Beraz, ERRESERBATU gisa sailkatutako txostena da, ETArekin eta beraren aldeko taldeen estrategiari buruzko ikerketa zabalago baten parte da, eta, halako ikerketa den aldetik, egungo legeriak terrorismoaren aurkako ikerketetarako eta dokumentazio sailkaturako ezartzen dituen mugak ere baditu, informazioaren hedapenari dagokionez.

Ondorioz, bai dokumentuaren sailkapenagatik beragatik bai isilpeko gaiei buruzko ikerketa baten parte izateagatik, aipatutako txostenaren edukia ezin da aditzera eman, Estatuaren segurtasunari zuzenean lotutako alderdi batzuekin zerikusia duelako eta terrorismo delituez egiten ari diren ikerketetan eragina izan dezakeelako.

Zure esanetara geratzen naiz eta aukera honez baliaturik agur beroa bidaltzen dizut.

Madrilan, 2013ko abenduaren 10ean.

Segurtasunerako estatu idazkaria: Francisco Martínez Vázquez

Galdera, 2013ko ekainean onetsitako Nafarroako Kutxa Fundazioaren estatutu berrietan ezarritako eskumen berekiak betez Nafarroako Gobernuak 2013an egindako jarduketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, 2013ko ekainean onetsitako Nafarroako Kutxa Fundazioaren estatutu berrietan ezarritako eskumen berekiak betez Nafarroako Gobernuak 2013an egindako jarduketei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko urtarrilaren 27ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak Parlamentuko galdera egin du 2013an onetsitako Nafarroako Kutxa Fundazioaren estatutu berrietan ezarritako eskumen berekiak betez Nafarroako Gobernuak 2013an egindako jarduketei buruz (PES-00005). Hauxe erantzun dio Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

2013ko uztailaren 18ko 478/2013 Ebazpenaren bidez, Nafarroako Kutxa Fundazioa Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatu zen.

Urriaren 11ko 347/2013 Foru Aginduaren bidez, Nafarroako Kutxa Fundazioan Babesletzak duen

ordezkaria izendatu zen. Foru agindu hori erantsi da 1. dokumentu gisa.

Egun horretatik aurrera, Babesletzaren ordezkariak, Nafarroako Kutxa Fundazioaren Estatutuen 52. artikuluan ezarritako eginkizunak betez, Patronatuaren bilkura hauetan parte hartu du:

- 2013ko urriaren 18koan.
- 2013ko azaroaren 4koan.
- 2013ko azaroaren 26koan.
- 2013ko abenduaren 30ekoan.

2013ko abenduaren 30ean, Nafarroako Kutxa Fundazioaren Estatutuen 40. artikuluan ezarrita dagoen bezala, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak Nafarroako Kutxa Fundazioaren 2014rako aurrekontua eta jarduketa plana eskatu eta jaso zituen. Aurrekontu horiek Fundazioaren web orrian argitaratu dira.

Babesletzak ez du beste jarduketarik egin 2013. urtean, eta ez dago jasorik Patronatuak egin duenik Estatutuen arabera Patronatuak jakinarazi edo baimendu behar duen eragiketarik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2014ko martxoaren 17an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, 2013an zehar “konpromiso sozialeko proiektuaren zigilua” lortu duten proiektuei merkataritza-enpresek, finantza-entitateek eta pertsona partikularrek egindako dohaintzei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Xabier Lasa Gorraiz jaunak egindako galderaren erantzuna, 2013an zehar “konpromiso sozialeko proiektuaren zigilua” lortu duten proiektuei merkataritza-enpresek, finantza-entitateek eta pertsona partikularrek egindako dohaintzei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2014ko otsailaren 21eko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2014ko martxoaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Xabi Lasa Gorraiz jaunak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du konpromiso sozialeko proiektuaren zigiluari buruz; zehazki 5 galdera egin ditu (PES-00042). Hau erantzun du Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

1. 2013an zehar “konpromiso sozialeko proiektuaren zigilua” lortu duten proiektuei merkataritza-enpresek, finantza-entitateek eta pertsona partikularrek egindako dohaintzek zenbat egiten dute?

Dohaintzek guztira 71.302,71 euro egiten dute.

2013ko datuak 182 informazio-eredutik hartu dira eta aitorten hori aurkezteko epea 2014ko urtarrilaren 31n amaitu zen. Ohartarazi behar da datuak behin-behinekoak direla eta ekarpen-egile-en PFEZaren eta sozietateen gaineko zergaren aitortenekin erkatu gabe daudela, oraindik ez direlako aurkeztu aitorten horiek. Hain zuzen ere 2013. urtekoak aurkezteko epeak 2014ko ekainean (PFEZa) eta uztailean (sozietateen gaineko zerga) amaituko dira.

2. Zenbat dohaintza egin dira?

138 dohaintza egin dira.

3. Izenik eman gabe eta emaileak identifikatu gabe, zein da dohaintza horiek egin dituzten entitateen tipologia (merkataritza-enpresak, finantza-entitateak, partikular gisa jardun duten pertsona fisikoak) eta talde bakoitzeko kopurua?

| | | |
|---|------------|-----------------------|
| Pertsona fisikoak | 106 | 36.283,48 euro |
| Nafarroako araudiaren pean tributatzen ez duten merkataritza-enpresak | 2 | 1.124,00 euro |
| Nafarroako araudiaren pean tributatzen duten merkataritza-enpresak | 3 | 7.000,00 euro |
| Finantza-entitateak | 1 | 1.102,40 euro |
| Nafarroako araudiaren pean tributatzen duten irabazi-asmorik gabeko entitateak | 23 | 11.554,65 euro |
| Nafarroako araudiaren pean tributatzen ez duten irabazi-asmorik gabeko entitateak | 3 | 14.238,18 euro |
| Guztira | 138 | 71.302,71 euro |

4. Zenbat diru eman du lehen adierazitako entitate-mota horietako bakoitzak?

Aurreko atalean dago erantzuna.

5. Ogasun Departamentuak zenbat diru gutxiago lortuko du, “konpromiso sozialeko proiektuaren zigilua” duten proiektuetarako dohaintzen emaile horiei aplikatutako salbuespen fiskalen ondorioz”?

138 ekarpen edo dohaintza aitortu dira, guztira 71.302,71 euro egiten dutenak, honela banatuta:

a) Pertsona fisikoak: 36.283,48 euro.

Aurreikusitako zerga-arintzea: $36.283,48 \times 0,40 = 14.513,39$ euro.

b) Sozietateen gaineko zergan Nafarroan tributatzen duten pertsona juridikoak: 8.102,40 euro. Gastu kengarria: % 30. Kuotako kenkaria: % 20.

Aurreikusitako zerga-arintzea: $8.102,40 \times 0,50 = 4.051,20$ euro.

Argitu beharra dago pertsona juridiko horien zerga-arintzearen kalkuluan % 30eko gehieneko karga-tasa nominala aplikatu dela. Oraindik ez

dakigu karga-tasa efektiboa zenbatekoa izan den, baina txikiagoa izanen da zalantzarik gabe. Halaber enpresa emaile guztiek % 20ko kenkaria aplikatuko dutelakoan egin da kalkulua, baina ez da beti hala izaten. Beraz, gehieneko zerga-arintzea kalkulatu da eta egiazkoa txikiagoa izanen da.

Gogora ekarri behar da, halaber, Nafarroan tributatzen ez duten eta Nafarroan zerga-arintzerik izanen ez duten pertsona juridikoek 1.124 euro jarri dituztela.

c) Sozietateen gaineko zergan tributatzen duten baina fundazio, parrokia edo elkarte diren

pertsona juridikoak: $25.792,83 \times 0,00 = 0$ euro. Irabazi-asmorik gabeko entitateak direnez, aurreikus-ten da ez dutela zerga-oinarri positiborik izanen eta ez dutela zergarik ordainduko. Beraz, aurrei-kusten da ez dutela zerga-arintzerik izanen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parla-mentuko Erregelamenduaren 194. artikulua bete-tzeko.

Iruñean, 2014ko martxoaren 14an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Idea-lehiaketa, Nafarroan terrorismoaren biktima izandakoen oroimenez artelan plastiko bat egitekoa.

Oinarri arautzaileak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 24an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroan terrorismoaren biktima izandakoen oroimenez artelan plastiko bat egiteko ideia-lehiaketaren oinarriak onestea.

2. Agintzea ideia-lehiaketa has dadin eta bidezko diren iragarkiak argitara daitezen Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean.

Iruñean, 2014ko martxoaren 24an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Idea-lehiaketa, Nafarroan terrorismoaren biktima izandakoen oroimenez artelan plastiko bat egitekoa

Nafarroako Parlamentuan terrorismoaren biktimen oroimenez artelan plastiko bat jartzeko proposamenen hautapen prozesua arautzen duten oinarriak.

Lehena.- Lehiaketaren xedea.

Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako herria ordezkatzeko duen erakundea den aldetik, terrorismoaren biktimen oroitzapenari bizirik eutsi behar dio memoria kolektiboan. Horregatik beharrezkotzat jotzen du terrorismoaren erruz bizia galdu duten pertsona guztienganako Nafarroako gizartearen errekonozimendua artelan batean islatzea. Hortaz, ideia-lehiaketa bat antolatu du, terrorismoaren biktimen omenezko artelan plastiko bat (eskultura, pintura edo grabatua) egiteko.

Obra irabazlea Nafarroako Parlamentuko atalondoaren goiko aldean jarriko da (0 solairuan, osoko bilkuren aretoko gonbidatuen tribunarako bi sarreren artean).

Bigarrena.- Parte-hartzaileak.

Nafarrak diren edo deialdia argitaratzen den egunean Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren artistek parte hartu ahal izanen dute, banaka nahiz taldean.

Hirugarrena.- Baldintza teknikoak.

Proiektuak terrorismoaren biktimen oroimenezko adierazpen artistikoak izanen dira, libreak teknikaren, neurrien eta adierazpideen aldetik, originalak eta argitaragabeak.

Izendatutako gune publikoari egokitu behar zaizkio proiektuak, eta artelanaren iraunkortasuna bermatuko duten materialak erabili behar dira, aukeratzen den arte-modalitatea aukeratzen dela: eskultura, pintura nahiz grabatua.

Parte-hartzaileek, aurkeztu beharreko dokumentazioan, izendatutako gunearen barruan egokiena iruditzen zaien kokalekuaren proposamena erantsiko dute. Kokaleku horrek ez ditu mugatuko igarolekua erabiltzeko aukerak, eta ez du traba egingen bertako jende-ibilbide nagusietan.

Nolanahi ere, Nafarroako Parlamentuak artelanaren kokalekua aldatu ahal izanen du, egokituz jotzen badu.

Laugarrena.- Hornidura ekonomikoa.

Sari bakarra emanen da: proiektu saridunak 2.000 euro jasoko ditu. Diru kopuru horri zergak direla-eta atxiki beharreko diru kopurua gehituko zaio. Proiektatutako obra egiteko, 16.000 euroko gehieneko hornidura ekonomikoa gordeko da, zergak aparte. Zenbateko horrek barnean hartuko ditu obra garraiatu eta kokatzeko balizko gastuak.

Obra egin, garraiatu eta kokatzeko kostuak lana amaitutakoan ordainduko zaizkio egileari. Aldez aurretik gastuak justifikatu beharko ditu fakturak aurkeztuz, eta inoiz ez dira gaitutako finkatutako zenbatekoak.

Obrarekin batera plaka bat jarriko da, "Terrorismoaren biktimen omenez" inskripzioarekin.

Egileak bere obraren garraio- eta kokapen-lanak gainbegiratuko ditu, eta lan horien erantzulea izanen da.

Bosgarrena.- Inskripzioa eta betekizunak.

Lanak lehiaketarako onar daitezten, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

Interesdunek gutun-azal itxi bat aurkeztuko dute, eta horren kanpoaldean "Ideia-lehiaketa, Nafarroan terrorismoaren biktima izandakoen oroimenez artelan plastiko bat egitekoa" esaldia eta egileak obrari jarritako izena edo leloa agertuko dira. Egilea ez da inola ere identifikatuko gutun-azalaren kanpoaldean.

Gutun-azal horretan beste bi gutun-azal sartuko dira, horiek ere itxiak:

– 1. gutun-azala egilearen izen goitiaz identifikatuko da, eta barruan hau sartuko da:

1. Idatzizko dokumentazioa, egilearen izen goitiaz identifikatua, honako atal hauek bilduko dituen 5 DIN A4 orritan, gehienez ere:

- Proiektuaren deskribapen-memoria, proiektua nola gauzatu den zehazten duena: materialak, neurriak eta akaberak, obraren ezaugarriak eta hura egin eta instalatzeko prozesua.

- Obraren portaeraren segurtasunaren eta mantentzearen deskribapena eta hura instalatzeko aurreikusitako ainguratze eta finkatze sistemen xehetasunak.

- Obra egin, garraiatu eta kokatzeko prozesuko kontzeptu guztiak bilduko dituen aurrekontu xehekatua, zergak barne.

- Proiektatutako obra egiteko eta instalatzeko beharko den denboraren zenbatespen tekniko arrazoitua.

2. Dokumentazio grafikoa, nahi adina, hori ere egilearen izen goitiaz identifikatua. Esaterako:

- Obraren edo horren maketaren argazkiak.
- Obraren oinplanoak, altxaerak eta perspektibak.
- Obraren diseinuaren, kokalekuaren eta inguruarekiko erlazioaren zirriborroak.
- Obraren amaierako aurkezpenaren fotomuntaketak, obra irudikatzen dutenak Nafarroako Parlamentuko atarian, goian, ezker aldean (0 solairuan, osoko bilkuren aretoko gonbidatuen tribunarako sarreraren artean).

- Egilearen ustez obra hobeki ulertzeko eta baloratzeko balio dezakeen informazio oro.

Informazio grafiko guztiak paperezko euskarrian aurkeztuko dira, egokituz jotzen den formatuan.

– 2. gutun-azala egilearen izen goitiaz identifikatuko da, eta barruan hau sartuko da:

- Egilearen nortasun agiri nazionalaren fotokopia.

- Egileak parte hartu nahi duela dioen idazkia.

- Curriculum vitae-a.

- Aurkeztutako obra egilearena eta originala dela dioen zinpeko adierazpena. Bertan adieraziko da, halaber, obra ez dela besteren baten kopia, eta inoiz ez dutela bere osoan hautatu, argitaratu edo saritu beste deialdi, hautapen, lehiaketa edo hedabideren batean. Adierazpen hori egilearen izen goitiaz identifikatuko da, eta ez da agertuko egilea nor den.

Gutun-azal hori lehiaketako obra irabazlea hautatu eta gero irekiko da.

Proposamenak sekretuak izanen dira. Haietako bat aurkezteak esan nahiko du interesdunak baldintzarik gabe onartzen duela oinarri hauetako klausula guztien edukia, eta bere erantzukizunaren pean adierazten duela aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta deialdi honetan parte hartzeko eskatutako gainerako baldintzak betetzen direla. Epaimahaiak erabakia hartu ondoren, irabazlearen izen goitiaz daukan gutun-azala jendaurrean irekiko da, hautatutako obraren egilea nor den jakiteko. Epaimahaiaren erabakia eta irabazlearen izen goitiaz daukan gutun-azalaren irekiera 2014ko ekainaren 27an emanen dira jakitera.

Izendatutako gunean obra nola kokatuko den aztertu ahal izateko, plano eta argazkien bidezko informazioa eskainiko da. Idatziz eskatu beharko da protocolo@parlamentodenavarra.es helbide elektronikoan, edo bestela 948209202 telefonora deitu.

Epaimahaiak agiri osagarri gehiago aurkezteko edo zerbait argitzeko eskatu ahal izanen die parte-hartzaileei. Agiri horiek hamar egun naturaleko epe luzaezinean igorri beharko dira Nafarroako Parlamentura.

Seigarrena.- Aurkezteko epea, modua eta tokia.

Inskripzioak, eskatzen diren agiriekin batera, Nafarroako Parlamentuan (Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzua) aurkeztuko dira edo bertara bidaliko dira (posta ziurtatuz). Helbidea: Navas de

Tolosa kalea 1, 31002 - Iruña. Proiektuak onartze-ko epea 2014ko ekainaren 2ra artekoa izanen da.

Proposamenen igorpena parte-hartzaileen kontura izanen da.

Zazpigarrena.- Proposamenak itzultzea.

Egileek proposamen saritugabeak jaso behar-ko dituzte, eta aurkeztu ziren enbalaje beretan edo antzekoetan bilduta itzuliko zaizkie. Eskura aurkeztutako proiektuak era berean jaso behar-ko dituzte egileek. Agentzia bidez bidali zirenak modu berean itzuli ahal izanen dira, garraio-kostua ordaindu gabe, inskripzioan adierazitako helbidera. Nafarroako Parlamentuak ez du epaimahaiaren erabakiaren ondoko 60 eguneko epean jasotzen ez diren proiektuen gaineko erantzukizunik izanen.

Zortzigarrena.- Epaimahaia.

Hauexek izanen dira epaimahaiko kideak:

– Nafarroako Parlamentuko lehendakaria, epaimahaiburu ariko dena.

– Nafarroako Parlamentuko lehen lehendakariordea.

– Nafarroako Parlamentuko lehen idazkaria.

– Tomás Caballero fundazioaren ordezkari bat.

– Terrorismoaren Biktimen Fundazioaren ordezkari bat.

– Mariano González Presencio jauna, arkitektoa.

– Mercedes Jover Hernando andrea, Nafarroako Museoko zuzendaria.

– Gregorio Díaz Ereño jauna, Jorge Oteiza Museoko zuzendaria.

– Javier Briongos jauna, Tuterako Castel Ruizeko zuzendari eta Muñoz Sola Museoko arduraduna.

– Camino Paredes Giraldo andrea, Lizarrako Gustavo de Maeztu museoko zuzendaria.

– Javier Manzanos jauna, Huarte Arte Garaikideko Zentroko zuzendaria.

Epaimahaiko kideren batek huts egiten badu, Nafarroako Parlamentuak hura ordeztea komeni den ala ez erabakiko du.

Bederatzigarrena.- Artelana egitea.

Epaimahaiak aukeratzen duen proiektuaren egileak proiektua egiteko adjudikazioa ere jasoko du, eta baldintza hauek onartu behar-ko ditu:

Sariaren irabazleak salerosketa kontratu bat sinatu behar-ko du Nafarroako Parlamentuarekin.

Bertan, sariaren truke, Nafarroako Parlamentuari emanen dio egindako obraren jabetza, baita aurkeztutako proiektuarena ere, maketak eta dokumentazioa barne.

Proiektu sarituaren egileak Nafarroako Parlamentuari baimena emanen dio obraren eskala txiki-ko erreproduktzio asko egiteko, Nafarroako Parlamentuaren xedeen arabera erabil daitezten.

Horrez gain, kontratu berean, Nafarroako Parlamentuak obra eta proiektu sarituen jabetza intelektualeko eskubide ekonomiko guztiak jasoko ditu eskusibotasunez, eta obraren erreproduktziorako, banaketarako, jendaurreko komunikaziorako eta eraldaketarako ahalmena izanen du Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bateginaren 26. artikuluan ezarritako epean. Eskubidea izanen du obra erakusteko, zeinahi baliabide edo euskarri ukigarri nahiz ukiezin erabiliz, eta ustiapen-modalitate guzti-guztiak baliatzeko, tartean edozein euskarri edo formatutan erreproduktzioak egiteko eskubideak eta obraren banaketa eta komunikazio publikorako eskubideak. Horretan berariaz sartzen dira obren online igorpena eta emisioa eta Internet bezalako sare digital interaktiboen bitartez eskuragarri jartzea.

Obra bukatua eta bere lekuan kokatua aurkezteko eguna 2014ko azaroaren 21a izanen da.

Hamargarrena.- Informazio klausula (Datu Pertsonalen Babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoa)

Jakinarazten zaizu badagoela “Erregistro Orokorra” izeneko fitxategi automatizatu bat, barne-erabilerarako dokumentuen sarrera-irteerak kontrolatzeko eta epeak egiaztatze-ko erabiltzen dena, eta beste bat, “Kontabilitatea eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa” izeneko, Nafarroako Parlamentuaren jardura ekonomiko-finantzarioaren ondoriozko agiri, kontabilitate-orri eta kontratazio-espeditenteak izapidetzeko eta horien kontrola eta jarraipena egiteko erabiltzen dena. Eskatutako dokumentazioa bidaliz edo aurkeztuz, interesdu-nak bere datuen tratamendu baimendurako adostasuna agertzen du.

Era berean, jakinarazten dizugu eskubidea duzula zure datuetarako sarbidea izateko, datu horiek zuzentzeko, ezabatzeko eta datuok ez erabiltzea nahi duzula adierazteko. Eskubide horietaz baliatzeko, horretarako eskaera biltzen duen idazkia zuzendu behar-ko diozu Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, helbide honetara: Navas de Tolosa kalea 1, 31002 Iruña (Nafarroa), Tel.: 948 209 209, Faxa: 948 228 444, edo helbide elektronikoa honetara: registro@parlamentodenavarra.es.

Hamaikagarrena.- Oinarriak onartzea.

Lehiaketa honetan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek erabat onartzen direla eta epaimahaiaren erabakiak ere onartuko direla. Epaimahaiak saria inori ez ematea erabaki ahal izanen du.

Deialdi honetan sor daitezkeen auzi guztiak ebazteko eskumena Nafarroako Parlamentuko Mahaiak bakarrik izanen du.
